2. IKTak ezartzeko Planak gauzatzea, elkartekideen zuzeneko partaidetza badakarte prozesu elkarrengileen bidez, transakzioak sustatzen badituzte, eta ondorengo jarduerekin lotuta badaude:
 - Marketin elektronikoa (e-Marketina).
 - Erosketak (e-Procurement).
 - Merkataritza Elektronikoa (e-Commerce).
 - Merkatu Birtualak (e-Marketplaces).
 - Elkartearen web gunea diseinatu eta ezartzea, beti ere, elkarteari buruzko informazioa emateaz gain, elkartekideekin transakzio komertzialak egiteko aukera eskaintzen badu.
 - Estraneta diseinatu eta ezartzea, elkartearen eta bere bezero edota hornitzaileen arteko komunikazioa optimizatzeke.
 - Bezeroen edota hornitzaileen eta bestelako eragile edo erakundeen arteko erkidego birtualak sortzea, esperientziak eta praktika onak trukatzeko, eta enpresen arteko lankidetzeta sustatzeko, baldin eta elkartekideekiko transakzio zerbitzuak badakartzate, hau da, mezuen trukaketa hutsa ez bada.
3. Elkarteko enpresek erabil ditzaketan aplikazio informatikoak sortzea. Aplikazio informatiko edo kudeaketako tresna horiek Software Libreko tresnak erabiliz garatu beharko dira eta GPL (General Public License) aplikazio gisa erregistratu, edozein enpresak muga gabe erabil ditzan.



ONURADUNAK:

«Hobeki + Digital@» ekimenaren barruan

Onuradun izan daitezke jarduera ekonomikoa gauzatzen duten pertsona fisiko eta juridikoak, horrez gain, ondorengo baldintzak ere betetzen badituzte:

1. Beren helbide soziala EAEn edukitzea edo gutxienez jarduera zentro bat EAEn kokaturik egotea.
2. ETE izateko baldintzak betetzea, 2008ko abuztuaren 6ko Europako Batzordearen 800/2008 Araudiko I. eranskinak edo hori ordezkatu edo aldatuko duten xedapenek ezarritakoaren arabera.
3. Onuradun izateko baldintzak betetzea indarrean dauden legeek zehazten dutenaren arabera.
4. Zerga alorreko betebeharretan eta Gizarte Segurantzari dagozkionetan egoera erregularizatuta edukitzea, indarrean dagoen legeriaren arabera eska daitezkeen mugen barnean, hala nola SPRI taldeko edozein elkarterekin dituen betebeharretan ere bai.

Baldintza horiek guztiak bete beharko dira Laguntza Eskaria eta Likidazio Eskaria aurkeztean. 2. puntua Laguntza Eskaria aurkeztean bakarrik akreditatu beharko da.

«Lankidetzeta + Digital@» ekimenaren barruan

Zuzenean enpresa jarduera gauzatzen duten enpresa edota profesionalen elkarte diren pertsona juridikoak, edo bestela enpresa jarduera gauzatzen duten enpresa edota profesionalak biltzen dituztenak, horrez gain, ondorengo baldintzak ere betetzen badituzte:

1. Beren helbide soziala EAEn edukitzea edo gutxienez jarduera zentro bat EAEn kokaturik egotea.
2. Elkartekideen artean Informazio eta Komunikazioen Teknologia ezartzea bultzatu eta errazten duten enpresa edota profesionalen elkarteak izatea, baldin eta 10 erakunde elkartekide gutxienez biltzen dituzten proiektuak aurkezten badituzte, erakundeok IKTak sartzeko proiektuan murgildurik daudela egiaztatzen badute, eta beren helbide soziala EAEn badute edo gutxienez jarduera zentro bat EAEn kokaturik badute.
3. Zerga alorreko betebeharretan eta Gizarte Segurantzari dagozkionetan egoera erregularizatuta edukitzea, indarrean dagoen legeriaren arabera eska daitezkeen mugen barnean, hala nola SPRI taldeko edozein elkarterekin dituen betebeharretan ere bai.

ZENBATEKOA:

ETEEn kasuan (Hobeki + Digital@ ekimena)

Diagnostikoak egiteko, Informazio eta Komunikazio Teknologia (IKT) Ezartzeko Planak taxutzeko eta plan hauek burutzeko, diru-laguntza ez-itzulgarria jasoko da:

- Mikroenpresek eta enpresa txikiek diruz lagun daitezkeen gastuen % 35.
- Enpresa ertainek diruz lagun daitezkeen gastuen % 20.

Diagnostikoak egiteko edota IKTak ezartzeko planak taxutzeko diru-laguntzak ez dira izango, nolana ere, 2.000 eurokoak baino gehiagokoak.

Enpresa bati urtean proiektu bat edo gehiago burutzeko emango zaion gehienezko diru-laguntza 12.000 eurokoa izango da ekitaldi bakoitzean.

Salbuespen gisa, «Hobeki + Digital@» Programaren Batzorde Exekutiboak gehienezko diru-laguntza handitu dezake eta beste 21.000 euro gehitu bikaintzat jotzen dituen proiektuetarako.

Bikaintzat jotzen diren proiektu horietan, diru-laguntzaren portzentajea % 50ekoa izango da, enpresa txikia ala ertaina den kontuan hartu gabe.

Enpresa eta profesionalen elkarteek kasuan (Lankidetzeta + Digital@ ekimena)

Oro har, Arau honen 5. artikuluan azaldutako diruz lagundu daitezkeen gastuen eta inbertsioen % 50.



KONTAKTUA:

Javier Mújica
902 25 25 95 / 94 403 70 56
jmugica@spri.es

ARAUTEGIA: IRAGARKIA SPRI. EHAA: 2011-01-24

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/698-5_tics_spri_24-01-2011.pdf



Produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko. Gaitek programa

Informazio Iturria: EHAA

Data: 2010/12/30

Epea: 2011/06/02

Xedea: I+G+B

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Diruz lagun daitezkeen I+G+Bko jardueren artean, honako hauek:

- Industria-ikerketako proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.
- Industriako ikerketa-proiektuak.
- Lehiatu aurretiko garapen esperimentaleko proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.
- Garapen esperimentaleko proiektuak.

Agindu honen ondorioetarako, Ikerketako eta Garapen eta Berrikuntzako Estatuko Laguntzei buruzko Erkidegoko Esparruaren 2.2 puntuaren f) idatz-zatiko definizioan (2006 / C 323/ 01) ezarritakoa ulertuko da Industria Ikerketatzat, eta Garapen Esperimentaltzat, berriz, Erkidegoko Esparruko 2.2 puntuko g) idatz-zatiko definizioan ezarritakoa.

ONURADUNAK:

Elkarteak - Fundazioak, Enpresak, ETE

ZENBATEKOA:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoari dagokionez, (250.000 euro) urteko deialdian egunera daiteke, KPlaren gorabeherak aintzat hartzearen, baina mugak handitzeagatik, inola ere ezin izango dira handitu laguntzen gehieneko intentsitateak proiektu mota guztietan, ETEen Erkidegoko Esparruaren eta Araudiaren arabera, hurrenez hurren.

KONTAKTUA:

Miguel García
Teléfono: 94 403 70 43
mgarcia@spri.es



ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko abenduaren 15ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. EHAA: 2010/12/30

AGINDUA, 2008ko azaroaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bitartez, produktu berriak garatzeko proiektuak egiteko laguntzen programa arautzen da. Gaitek programa. EHAA: 2008/12/23

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/708-9_innovacion_gv_30-12-2010.pdf



Oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko. NETs laguntza programa

Informazio Iturria: EHAA

Data: 2010/12/30

Epea: 2011/06/02

Xedea: I+G+B

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Diru-laguntza jaso dezaketen I+G+Bko jardueren artean, honako hauek hauta daitezke:

- Industria-ikerketako proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.
- Industriako ikerketa-proiektuak.
- Garapen esperimentaleko -proiektuen aurreko bideragarritasun-azterketak.
- Garapen esperimentaleko proiektuak.

Jarduera horietan honako hauek barne hartuko dira: enpresa berria merkaturatzeko lan-plangintzaren definizioa eta aurrekontua.

ONURADUNAK:

Elkarteak - Fundazioak, Enpresak, ETE, Zentro teknologikoak

ZENBATEKOA:

Itzuli beharrik gabeko diru-laguntzen gehieneko zenbatekoari dagokionez (250.000 euro), urteko deialdian egunera daiteke, KPIaren gorabeherak aintzat hartzearen, baina mugak handitzeagatik, inola ere ezin izango dira handitu laguntzen gehieneko intentsitateak proiektu mota guztietan, ETEen Erkidegoko Esparruaren eta Araudiaren arabera, hurrenez hurren.

KONTAKTUA:

Miguel García

Telefonoa: 94 403 70 56

mgarcia@spri.es



ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko abenduaren 15ekoa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. EHAA: 2010/12/30

AGINDUA, 2009ko abenduaren 23koa, Industria, Berrikuntza, Merkataritza eta Turismo sailburuarena. EHAA: 2010/01/15

AGINDUA, 2008ko azaroaren 27koa, Industria, Merkataritza eta Turismo sailburuarena; horren bitartez, oinarri zientifikoa eta teknologikoa duten enpresak merkaturatzeko proiektuak egiteko NETs laguntza programa arautzen da. EHAA: 2008/12/23.

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/706-9_innovacion_gv_30-12-2010.pdf

G! Industria ikerketako eta garapen esperimentaleko proiektu integratuak —izaera estrategikokoak— EAEn burutzeko laguntza-programa. Etorgai programa

Informazio Iturria: EHAA

Data: 2010/12/30

Epea: 2011/05/27

Xedea: I+G+B

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

1. Eusko Jaurlaritzaren Zientzia, Teknologia eta Ikerketa Politiken barruan edota Europar Batasuneko politika zientifiko-teknologikoen barruan kokatutako Industria-ikerketako proiektu integratu estrategikoei jasoko dute diru-laguntza, Zientzia, Teknologia eta Berrikuntzarako Euskal Sarearen eragileekin lan egiten duten eta Erkidego Esparruaren «industria ikerketaren» 2.2.f) puntuko (ikus II. eranskina) definizioarekin bat datozen enpresek garatuak.
2. Era berean, Erkidegoko Esparruko (ikus II. eranskina) garapen esperimentaleko proiektuek ere jasoko dute diru-laguntza (2.2.g puntuari definizioaren arabera).
3. Jardun-arlo zientifiko-teknologiko estrategikoei, diru-laguntza jaso dezaketen proiektu hauentzako lehentasuna dute, interes berezia izan dezaketen beste batzuk alde batera utzi gabe.

ONURADUNAK:

Elkarteak - Fundazioak, Enpresak, ETE

ZENBATEKOA:

Diru-laguntzarekin ordaindu ahal diren gastuen % 40 ezin izango du gainditu proiektu bakoitzerako gehieneko diru laguntzak, Agindu honetako 4. artikuluan ezarritakoari jarraiki.

KONTAKTUA:

Maite Hernández

Telefonoa: 94 403 70 30 – 945 01 65 70

etorgai@spri.es



ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010eko abenduaren 22koa, Berrikuntza eta Teknologiako sailburuordearena. EHAA: 2010/12/30

AGINDUA, 2008ko abuztuaren 6koa. EHAA: 2008/08/26.

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/898-5_investigacion_industrial_gv_30-12-2010.pdf



Krisialdiak jotako enpresak berregituratu eta bultzatzeko laguntzak

Informazio Iturria: EHAA

Data: 2010/12/27

Epea: 2011/07/30

Xedea: Ekonomiko-Finantza

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Krisialdiak jotako enpresek prestatutako berregituratze planetan sartzen dituzten industria eta finantzak berregituratu eta bultzatzeko neurriak gauzatzea sustatuko da. Neurri horiekin enpresen bideragarritasuna berreskuratzea nahi da epe ertain eta luzera.

ONURADUNAK:

ETE

ZENBATEKOA:

Dekretu honetan araututako laguntzak aurrerakin itzulgarrien bidez gauzatuko dira.

Laguntzaren zenbatekoa.

Emandako laguntzaren zenbatekoa, planean sartutako berregituratze neurrien kostu osoaren %33rainokoa izan daiteke, gehienez ere 280 milioi pezetarainokoa, betiere dirulaguntzen onuradunak horien finantzaketan bere baliabideekin laguntzen badu.

KONTAKTUA:

Gorka Etxabe / Juan Manuel Uriarte

Telefonoa: 945 01 99 85 / 945 01 82 67

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010ko azaroaren 17koa, Industria eta Energiako sailburuordearena. EHAA: 2010/12/27.

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/694-8_bideratu_gv_27-12-2010.pdf



Emakumeen eta gizonen berdintasunari buruzko ikerlanak argitaratzeko proiektuetarako diru-laguntzak

Informazio Iturria: EHAA

Data: 2010/12/17

Epea: 2011/03/31

Xedea: Aukera berdintasuna

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Emakumeen eta gizonen berdintasuna lortzen laguntzen duten argitalpen-proiektuak lagunduko dira, zehazki, emakumeek eta gizonek bizitzaren arloetan dauzkaten egoera, baldintza eta behar desberdinak aztertzen dituztenak, ezberdintasunak ezabatzeko eta berdintasuna sustatzeko bideak aztertzen dituztenak eta/edo Euskal Autonomia Erkidegoan jarduerak eta proiektuak emakumeengan eta gizonengan duten eragin ezberdina ebaluatzen dutenak.

Bereziki, gastu hauek lagunduko dira:

- Testuak zuzendu eta maketatzeko gastuak eta fotomekanika eta inprimaketa gastuak.
- Inprenta eta banaketa gastuak.
- Beste gastu batzuk.

Diruz lagundu daitekeen gastutzat ezingo da jarri BEZ kengarriaren zenbatekoa, baldin eta pertsona edo erakunde eskatzailea zerga horren aitortpena egitera behartuta badago.

2011ko urtarrilaren 1a eta abenduaren 31 bitartean argitaratu beharko dira ikerlanak.

ONURADUNAK:

Pertsona fisikoek eta juridikoek, pribatuek nahiz publikoek, eska ditzakete laguntzak. Administrazio publikoek eta horien erakunde autonomoek ez dute laguntzarik eskatzerik izango; bai, ordea, Euskal Herriko Unibertsitateak.

ZENBATEKOA:

Erakundearen Aurrekontuetan ondorio horretarako ezarritako aurrekontua 20.000 eurokoa izango da 2011ko ekitaldirako.

KONTAKTUA:

Maria de los Llanos Olivas

Telefonoa: 945 01 67 00

emakunde.estudios1@ej-gv.es

ARAUTEGIA: EBAZPENA, 2010ko azaroaren 24koa, Emakunde-Emakumearen Euskal Erakunde zuzendariarena. EHAA: 2010/12/17.

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1085_igualdad_investigacion_gv_17-12-2010.pdf



Araba

G! Araban enpresa berriak sustatu eta sortzeko laguntza deialdia (AUSARTU)

Informazio Iturria: ALHAO

Data: 2011/03/04

Epea: 2011/05/07

Xedea: Autoenplegua

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Dirulaguntza jaso ahalko dute soilik edozein modutan berrikuntzaren bat (produktua, ekoizpen prozesuak, antolaketa, marketinga, merkatuak, etab.) sartzen duten proiektuek:

Proiektuak ez dira diruz lagunduko, honako kasuetan:

- Proiektuan diruz lagunduko den zerbitzuaren eskaintzailea akzioen bidez enpresa edo sustatzaile eskatzailearekin lotuta egotea.
- Laguntza lerro honek edo aurrekoek diruz lagundutako azterlanen antzeko edukia duten azterlanak egitea.
- Berariaz merkataritzarako ordezkariak irekitzea.
- Jadanik dauden enpresak eskuratzeko, duten jarduerarekin jarraitzeko.

Proiektu berritzaileak martxan jartzeko egin beharreko gastuak diruz lagundu ahal dira, hala nola:

- Merkatu edota bideragarritasun azterketak aurrera eramatea eta sakontzea; hau da, merkatu azterlanak, bidaiak, proiektua garatzeko beharrezko diren azoketara joatea, dokumentazioa eta argitalpenak. Bidaien atalean, txartelen eta ostatu hartzeko gastuez gain, norberak bere ibilgailuarekin egindako bidaiaren gastu hauek ere onartuko dira: erregaia, autobideak eta aparkalekuak. Erragaiaren kasuan, kilometroko 0,29 euroko kostua onartuko da gehienez ere.
- Jarduera merkaturatzearekin lotutako komunikazioen gastuak, hau da, publizitate kanpainak, web orrien diseinua, sare sozialen diseinua, katalogoen diseinu eta edizioa, kartelak, bisita txartelak, etab.
- Jarduera merkaturatzearekin lotutako itzulpen zerbitzuen gastuak.
- Enpresa berriaren jarduerarekin lotutako txostenak, azterlanak eta aholkularitza teknikoa, beste profesional edo enpresa batzuei kontratatutakoak.
- Prototipoak diseinatzeko eta egiteko gastuak.
- Patenteak, baliagarritasun modeloak eta merkataritzako markak eskatzeko, emateko eta erregistratzeko hasierako gastuak.
- Abian jarriko den jarduerarekin zuzenean lotutako berariazko ikastaro teknikoetara joateko gastuak..
- Ibilgetu materiala (lursailak, eraikinak eta ibilgailuak salbu) eskuratzeko gastuak, betiere enpresa unitatea dirulaguntza jasotzean eratuta badago edo banakako enpresaria bere jarduerari dagokion JEZen alta emanda badago.
- Ibilgetu materialak leasing bidez eskuratzen badira, kuotak diruz lagundu ahalko dira, interesik eta BEZik gabe.
- Era berean, laguntza jaso ahalko dute EAEko bi hizkuntza ofizialak erabiltzeko betebeharra betetzeagatik sortutako gastuek, oinarri hauen 15. artikuluko 2. paragrafoan jasotakoari jarraiki.



- Proiektu berriak abian jartzeko beharrezkotzat jotzen diren gastuak, oro har.

ONURADUNAK:

Laguntza lerro honetan jasotzen diren onurak eskuratu ahal izango dituzte proiektu berritzaileak dituzten sustatzaile edo enpresa hauek:

- Enpresa unitate berri bat egiteko proiektua duten banakako sustatzaileak. Sustatzaileek Araban izan beharko dute beren egoitza. Egoitza Arabatik kanpo izatekotan, Arabako Lurralde Historikoko udalerriren batean Jarduera Ekonomikoen gaineko Zergan alta eman beharko dute dirulaguntza jaso aurretik..
- Beren jarduera dibertsifikatu nahi duten Arabako enpresak, enpresa unitate berri bat sortzeko proiektu zehatz bat aurkezten badute, eta proiektu horrek aurrekoak ez bezalako nortasun juridikoa badu.
- Egoitza Arabatik kanpo duten enpresa edo sustatzaileak, beren jarduera gure lurraldean ezarri nahi badute, lantoki berria Araban jarritz.
- Lehendik eratuta dauden Arabako enpresak, eskaera aurkeztean bi urte baino gutxiago izan eta artean merkaturatze fasean badaude.

ZENBATEKOA:

Erabaki honen babesean emandako laguntzak dirutan gauzatuko dira. Dirulaguntza horiek, gehienez, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren ehuneko 50aren parekoak izango dira, eta ehuneko 50 horrek ezin izango du inoiz 20.000,00 euro baino gehiago egin proiektuko. Horietatik, gehienez, 10.000,00 euro ibilgetu materiala eskuratzetik etorri ahal izango dira.

Proiektuaren barruko jarduerak ekitaldi bat baino gehiagotan egiten badira, proiektua laguntza hauen deialdi bat baino gehiagotara aurkeztu ahalko da; horien baturari ezarriko zaizkio goian aipatutako mugak.

Proiektua dirulaguntza jasotzeko modukoa izateko, dirulaguntzaren gutxienezko zenbatekoa 300,00 euroan ezartzen da.

KONTAKTUA:

Gema Ortiz de Zarate.

945.18.18.18

gemaortizdezarate@alava.net

ARAUTEGIA: 97/2011 Erabakia, otsailaren 22ko diputatuen kontseiluarena. ALHAO: 2011/03/04

Informazio gehiago:

<http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/747-4 creacion de empresas dfa 04-03-2011.pdf>



Turismoa sustatzeko jarduerak egiteko laguntzak

Informazio Iturria: ALHAO

Data: 2011/03/04

Epea: 2011/04/15

Xedea: Turismoa

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

- Turismoa sustapeneko material berria diseinatzea, prestatzea, maketatzea, itzultzea eta inprimatzea edo berrikuntzaren bat dakarten argitalpenak berrargitaratzea. Eskatzailea toki erakundea edo irabazteko xederik gabeko elkartearen denean baino ez dira diruz lagunduko inprimatze gastuak.
- Turismoa sustatzeko programa baten barruko jardueren publizitatea, mailing-ak eta buletinak. Eskatzailea toki erakundea edo irabazteko xederik gabeko elkartearen denean baino ez dira diruz lagunduko mailing gastuak.
- Seinaleen diseinu eta aholkularitza gastuak.
- Turismo produktuak eta gai baten inguruko natura edota kultura ibilbideak sortu, sustatu eta merkaturatzea.
- Turismoko web orriak diseinatu, eguneratu eta itzultzea. Halaber, web orri horiek erregistratu eta ostatatzeak berez dakartzan gastuak diruz lagundu ahal izango dira, orri horiek sortzeko baino ez badira erregistratu eta ostatatu.
- Diseinatze eta programatze kostuak, gizarte sareetan eskatzailearen presentzia erraztea helburu dutenak.
- Turismo informazioa hobeto kudeatzen laguntzen duten aplikazio informatikoak.
- Kanpo aholkularitzako gastuak, dauden kalitate eredu edo kalitate sistemen arabera kalitate ziurtagiri bat edo kalitate aintzatespena lortzearekin zuzenean lotuta daudenak.
- Irisgarritasuna hobetzeko jarduerekin lotutako aholkularitza gastuak.
- Azoketara joatea, eta Arabako Lurralde Historikoko kuadrilla edo udalontzat baino ez; halakoetan, turismo teknikari bat joateak eragindako gastuak baino ez dira diruz lagunduko. Ez dira gastu muga horien barruan sartuko azoketara Arabako Foru Aldundiarekin edota Eusko Jaurlaritzarekin batera edo bi horietarik edozeinek eskatuta doazen onuradunak.
- Kanpoko zerbitzuak kontratatzea, turismoa sustatze edo hedatzeari laguntzeko edo turismo bulegoak kudeatzeko.
- Turismoa sustatzeko berriazko ekitaldiak antolatzea.
- Turismo arloko jarduera berrien bideragarritasun azterlanak.
- Onuradunek Oinarri hauetako 10.2 artikuluan EAEko hizkuntza ofizialen erabilerari buruz jasotakoari dagokion betebeharra betetzeak eragindako gastu guztiak.

ONURADUNAK:

- Arabako Lurralde Historikoko kuadrillek.
- Gutxienez 3 urtetik hona turismo informaziorako bulegoa duten Arabako Lurralde Historikoko udalek.
- Euren jardura Arabako Lurralde Historikoko turismo sustapenean burutzen duten irabazteko xederik gabeko elkarteek.



- Turismoaren sektorean jarduten direla gizarte xedearen bidez egiaztatzen duten enpresa txiki eta ertainek, edozein delarik ere euren eraketa juridikoa, betiere gizarte eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan badute, edo gutxienez zerbitzu zentro bat Araban badute.
- Euren jarduera turismo sustapenean burutu eta zerga egoitza Arabako Lurralde Historikoan daukaten autonomoek.

ZENBATEKOA:

Kuadrilla, udal eta irabazteko xederik gabeko elkarteei dagokienez, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 80 arte irits daitezkeen dirulaguntzen bidez gauzatuko dira erabaki honetan jasotako laguntzak, orokorrean (ikus Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 2ko 39/2010 Erabakiko 7.4. oinarri orokorra), salbu eta sustapenerako materiala inprimatzeko gastuak; halakoetan, dirulaguntza ezin izango da izan diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 50 baino gehiago. Halaber, eta salbuespenez, diruz lagun daitekeen aurrekontuaren % 100 diruz lagundu ahal izango da Ekonomia Sustapen eta Enplegu Zerbitzuak interes berezikotzat jotako azoketara joatea; baita Berrikuntzaren eta Ekonomia Sustapenaren Sailaren iritziz Arabako Foru Aldundiak osorik finantzatzea behar duten jarduerak egitea ere, duten izaeragatik eta garrantziagatik.

Enpresa txiki eta ertainei, eta autonomoei dagokienez, diruz lagundu daitekeen aurrekontuaren % 40 diruz lagundu ahal izango da, erabaki honetan jasotako dirulaguntzen bidez (ikus Diputatuen Kontseiluaren otsailaren 2ko 39/2010 Erabakiko 7.4. oinarri orokorra). Edonola ere, ez da inoiz 20.000,00 euro baino gehiagokoa izango enpresa txiki eta ertain eta autonomoentzat arestiko portzentajeak aplikatzu ateratako dirulaguntzen zenbatekoa.

Eskaera diruz laguntzeko modukoa izateko, 300,00 euro izan behar da dirulaguntzaren gutxieneko zenbatekoa

KONTAKTUA:

Javier Durana

945 18 18 18

info@alavaturismo.com

ARAUTEGIA: 99/2011 erabakia, otsailaren 22koa. ALHAO: 2011/03/04

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/960-2_marketing_turismo_dfa_04-03-2011.pdf



G! Arabako enpresetan prestakuntza emateko laguntza programa

Informazio Iturria: ALHAO

Data: 2011/03/04

Epea: 2011/04/03

Xedea: Lan eta giza errekurtsoak

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Bi eratakoak izan ahalko dira diruz lagundutako jarduerak:

- Prestakuntza ikastaroak. Enpresek edo enpresetakoak ez diren eta enpresa eskatzaileari lotuta ez dauden langile espezializatuek, ikastaroak emateko breariak kontrataturikoek, emandako irakats ekintzak dira, oro har, programa honetan sartu ahal izango diren ikastaroak.
- Prestakuntza premien diagnosi-azterlanak. Langileen kualifikatze urritasunak eta gaitasun profesionaleko beharrianak nolakoak diren jakiteko azterlanak, langileentzako prestakuntza plan egokiak diseinatzeko.

ONURADUNAK:

Enpresak, ETE

ZENBATEKOA:

Birziklatze ikastaroak: dirulaguntzen zenbatekoak:

- Enpresa txiki eta ertainetarako (ETE): gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 75 prestakuntza orokorrerako jardueretan, eta ehuneko 40 prestakuntza espezifikokoetan.
- Gainerako enpresetarako: gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 55 prestakuntza orokorrerako jardueretan, eta ehuneko 30 prestakuntza espezifikokoetan.

Enplegurako prestakuntza ikastaroak:

- Enpresa txiki eta ertainetarako (ETE): gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 80 prestakuntza orokorrerako jardueretan, eta ehuneko 45 prestakuntza espezifikokoetan.
- Gainerako enpresetarako: gehienez, diruz lagundu daitekeen eta onartu den aurrekontuaren ehuneko 60 prestakuntza orokorrerako jardueretan, eta ehuneko 35 prestakuntza espezifikokoetan.
- Diagnosi-azterlanak: gehienez, onartutako gastuen aurrekontuaren ehuneko 50. Eta, gehienez ere, 6.000,00 euro emango da eskatzaileko.

Zenbateko hori 10.000,00 euro izan ahalko da, baldin eta eskatzailea enpresa taldea bada.

KONTAKTUA:

Juan Cortés

945 18 18 18 - Ext: 2267

ARAUTEGIA: 95/2011 ERABAKIA, martxoaren 2ko Diputatuen Kontseiluarena. ALHAO: 2011/03/04.



Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1045_ formacion_ empresas_ dfa_ 04-03-2011.pdf



Berrikuntzarako eta lehiakortasuna hobetzeko laguntzak (SAIATU)

Informazio Iturria: ALHAO

Data: 2011/03/04

Epea: 2011/04/15

Xedea: I+G+B

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Ondorengo kategoria hauetarikoren batean sar daitezkeen enpresek egindako jarduerak edota jardunak diruz lagundu ahal izango dira

BERRIKUNTZA: Kategoria honen barruan ondorengo proiektuak eta/edo ekintzak sartuko dira:

- Produktuan berrikuntza.
- Produkzio-prozesuetan berrikuntza.
- Berrikuntza, antolamenduan.
- Berrikuntza, marketing eta merkatuetan.
- Beste jardun berritzaile batzuk enpresarako.

NAZIOARTERA ZABALTZEA: Kategoria honen barruan sartuko dira Arabako enpresak pausoz pauso kanporantz irekitzera zuzendutako jarduera guztiak, merkatu globalak eskaintzen dituen aukerak aprobetxatzen dituzten ekoizpen ezarketak edo kanpoko merkatuetarako sarbidea babestuz.

INGURUMENA: Kategoria honen barruan sartuko dira beren jardueraren edo produktuaren ingurumen eragina neurri esanguratsuan murriztera zuzentzen diren jarduera guztiak, baita Europar Batasunaren ingurumen eskakizunetara moldatzera zuzenduak ere.

ONURADUNAK:

ETE, Autonomoak

ZENBATEKOA:

Oro har, erabaki honetan jasotako laguntzak dirulaguntzen bidez gauzatuko dira, hain zuzen ere, diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren % 30, gehienez ere, honakoak salbu:

- Ingurumenaren gaineko diagnostikoak egitea; horietan, diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren % 80 lortu ahalko da, gehienez.
- Enpresen Gizarte Erantzukizunaren (EGE) gaineko diagnostikoak egitea; horietan, diruz lagun daitezkeen aurrekontuaren % 80 lortu ahalko da, gehienez.

Ondoko dirulaguntzak emango dira, gehienez ere:

- 20.000,00 euro proiektu bakoitzeko, salbu eta ingurumen eta Enpresaren Gizarte Erantzukizunari buruzko diagnostikoetan. Horietarako 5.000,00 eta 3.000 euro izango dira, hurrenez hurren.
- 20.000,00 euro 4. artikuluan zehaztutako jarduera kategoría bakoitzeko, berrikuntza kategoriari dagokionetan izan ezik. Horrelakoetan, muga 30.000,00 eurokoa izango da, baldin eta, kategoriari horren bidez, proiektu bat baino gehiago lagun badaiteke diruz.



- 40.000,00 euroko dirulaguntza, guztira, enpresako.

Proiektuak dirulaguntza jaso ahal izan dezan, 300,00 euroko gutxieneko zenbatekoa ezarri da.

KONTAKTUA:

Arturo Gómez

945 18 18 18

ARAUTEGIA: 98/2011 ERABAKIA, martxoaren 23ko diputatuen kontseiluarena. ALHAO: 2011/03/08.

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/923-3_innovacion_dfa_04-03-2011.pdf



Merkataritza arloan euskararen presentzia sustatzeko dirulaguntzak

Iturria: ALHAO

Data: 2011/01/26

Epea: 2011/05/01

Xedea: Euskara

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Honako jarduera hauek diruz lagundu daitezke:

- Merkataritza establezimenduen kanpo errotulua aldatu eta bertan euskara sartzeko.
- Web orriak itzultzeko eta egokitzeko, euskaraz eta gaztelaniaz egon daitezen.
- Establezimenduaren hizkuntza egoeraren diagnostikoarekin, ebaluazioarekin edo zertifikazioarekin lotutako gastuak, esklusiboki horretan ari diren entitateek eginda denean.

ONURADUNAK:

Ezaugarri hauek dituzten pertsona fisiko nahiz juridikoek eskuratu ahal izango dituzte oinarri hauetan arautzen diren laguntzak: bizilekua Gasteizko udalerrian izan eta merkataritza jardueraren batean aritzea, diruz laguntzen diren lanak 2010eko apirilaren 1etik 2011ko martxo -aren 30era bitarteko epean egin izana eta jarduera enpresa txikitzat jotakoa izatea.

ZENBATEKOA:

Proiektuaren kostuaren ehuneko 50era arteko diru-laguntza emango du Udalak eta eskabide bakoitzeko gehienez 300 euro jaso ahal izango du. Diru-laguntzen zenbatekoak aurrekontu-partidan dagoen kreditua gainditzen badu, dagokien hainbanaketa aplikatuko zaie.

Diruz lagundutako jarduerarekin inolako zalantzarik gabe lotura dutenak eta zehaztutako epearen barruan egindakoak joko dira dirulaguntza jaso dezaketengatik. Horiei dagokienez, eroste kostuak ezingo du inolaz ere merkatuko balioetik gorakoa izan.



KONTAKTUA:

Imanol Zurutuza

945 16 15 22

izurutuza@vitoria-gasteiz

ARAUTEGIA: Vitoria-Gasteizko Udalaren iragarpena. ALHAO: 2011/01/26

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1103_promocion_euskera_comercio_ayto_vitoria_26-01-2011.pdf



Programa InnoCámaras – Apoyo a la cooperación en innovación en las Pymes

Fuente: BOTHA

Fecha: 17/11/2010

Plazo: 15/05/2011

Objeto de la Ayuda: Innovación

ACCIONES SUBVENCIONABLES:

Serán objeto de ayuda, los gastos incurridos por las Pymes durante el desarrollo de los “**Planes de Apoyo a la Cooperación en Innovación**”, estando referidos a los siguientes conceptos generales:

Fase I: Diagnóstico.

- Gastos de los servicios de asesoría proporcionados por el Tutor.

Fase II: Plan de Apoyo a la Cooperación en innovación.

- Gastos de los servicios de asesoría y consultoría proporcionados por el Asesor para la elaboración y desarrollo del Plan.
- Inversiones y/o gastos asociados al desarrollo y ejecución del Plan elaborado por el Asesor, cuya tipología se detalla en el Anexo I.

BENEFICIARIOS:

Pymes (incluyendo microempresas y autónomos), que tengan su domicilio social y/o centro productivo en el ámbito de demarcación de la Cámara de Comercio de Alava.

CUANTÍA DE LA AYUDA:

Fase I: Diagnóstico: El importe total financiable de los servicios asciende a la cantidad máxima de 1.200,00 €+ IVA

Fase II: Plan de Apoyo a la cooperación en Innovación: gastos de asesoría e inversiones asociados al desarrollo/ejecución del PAI hasta un importe de 6.000 euros (IVA no incluido) por cada empresa miembro del grupo participante en el plan de cooperación, durante un periodo máximo de 4 a 6 meses desde la fecha de firma del convenio.



PERSONA DE CONTACTO:

Santiago Barrueco

Teléfono: 945 14 18 00,

sbarrueco@camaradealava.com

NORMATIVA: Programa Innocamaras; apoyo a la cooperación e Innovación. BOTHA 17/11/2010

Más información:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1084_cooperacion_innovacion_camara_alava_17-11-2010.pdf

Gipuzkoa



Lurralde bezala Gipuzkoa sustatzeko programa

Informazio Iturria: GAO

Data: 2011/03/15

Epea: 2011/05/05

Xedea: Ikaskuntza.

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Bizitza osoko ikaskuntza sustatzen duten jarduketak izango dira diruz lagungarriak (eskumen-ardatzak garatzea; aldeko testuinguruak sortzea; herritar aktiboaren kontzeptua zabaltzea; eta herritar aktiboak sustatzeko tresnak garatzea).

Honako hauek dira sustatu beharreko jarduerekin 2011. deialdian lortu nahi diren helburu zehatzak:

- Esku-hartze planen diseinua eta aplikazioa bultzatzea, gaitasun sozialak eta emozionalak ikastetxeetan txertatzeko.
- Gaitasun sozialen eta emozionalen garapenean, ikastetxeetako eskola-elkartearen gaitasun areagotzea, haur eskolan, derrigorrezko lehen eta bigarren hezkuntzan, eta derrigorrezkoaren ondorengo hezkuntzan (batxilergoa eta erdi mailako nahiz goi mailako prestakuntza zikloak).
- Bizitza osoko prestakuntza bideragarri egingo duten ereduak, esperientziak, tresnak eta testuinguruak garatzea.
- Bizitza osoko ikaskuntzako gaitasun ardatzak sustatzea; batez ere, zerikusia dutenak ikasten ikasteko gaitasunekin eta gaitasun sozial eta emozionalekin.
- Enpresetako antolamenduaren eta kudeaketa sistemaren eraldaketa bultzatzea, gaitasun sozial eta emozionaletan esku hartuz.
- Bizitza osoko ikaskuntzako gaitasun ardatzen eskurapena sustatzea (pertsonalak, profesionalak eta sozialak) antolamenduzko testuinguru onuragarrietan (pertsonek ikuspuntuak eta partaidetza ereduak).



ONURADUNAK:

Entitate onuradunak honako hauek izango dira: Unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemako ikastetxeen sarea, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren funts publikoen bidez finantzatutakoa eta entitate horien interesak ordezkatzen dituzten taldeak eta elkarteak; unibertsitateak, enpresak eta enpresa elkarteak.

ZENBATEKOA:

Laguntzak diruz lagundu daitezkeen jardueraren aukeratzeko moduko kostuaren %100 har dezake.

KONTAKTUA:

Nagore Manzano

943 112 217

nmanzano@gipuzkoa.net

ARAUTEGIA: Lurralde bezala Gipuzkoa sustatzeko programa. GAO: 2011/03/15

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/900-2_formacion_aprendizaje_dfg_15-03-2011.pdf



Nekazaritza ustialekuekako titularrek nekazaritza aseguruak kontratazeko laguntzak

Informazio Iturria: GAO

Data: 2011/03/14

Epea: Nekazaritza aseguruaren polizen kontratazioa gestionatzen duten AGROSEGUROren Elkarteko erakunde laguntzaileen hiru hilean behin aurkeztu beharko dituzte epealdi horretan kontratatutako polizeei buruzko laguntza eskaerak Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuko erregistroan

Xedea: Nekazaritza

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Nekazaritza Aseguruaren kontratua, nekazaritza ustialekuen errenten egonkortasunean eragina duten arriskuen kudeaketarako tresna bat da, nekazaritza ekoizpen guztiak, behi azienda, ardi azienda, ahuntz azienda eta zaldi azienda bezalako abeltzaintza espezieak eta uretako ekoizpena babestuz. Aseguru polizen kontratazioa AGROSEGURO izeneko Konbinatutako Nekazaritza Aseguruaren Espainiako Aseguru Etxeen Elkartean sartutako erakundeetaren batekin egiten da. Elkartea sistemaren sortu zen.

ONURADUNAK:

Pertsona fisiko eta juridikoak

ZENBATEKOA:

- AGROSEGURO Elkarteko erakunde laguntzaileen bitartez kontratatutako poliza berrien primaren zenbateko osoaren %25a, eta %15a aurretik kontratatuta zeuden polizak berritzeko bada, behien entzefalopatia espongiformearen kasuan izan ezik, hori berritzeko, primaren zenbatekoaren %25era arte emango baita.



- b) Nekazaritza Aseguruaren Planean jaso gabeko, baina Nekazaritza Elkarteek izenpetu duten poliza kolektiboen primaren zenbateko osoaren %25a.

KONTAKTUA:

943 48 21 11

ARAUTEGIA: 2011ko martxoaren 1eko 90 zk FORU AGINDUA, nekazaritza ustialekuekako titularrek nekazaritza aseguruak kontratatzekeo laguntzen 2011ko deialdia onartzekoa. GAO:2011/03/14

2008ko uztailaren 29ko 66/08 Foru Dekretuak, Gipuzkoako Lurralde Historikoko nekazaritza ustialekuekako lehiakortasuna eta ingurumen iraunkortasuna hobetzeko laguntzak ezartzen dituenak. GAO:2008/08/12

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1010-3_seguros_agrarios_dfg_14-03-2011.pdf

G! Hiri hondakinen sortze-prebentzioaren eta berrerabilpenaren arloko jarduketarako diru laguntzak

Informazio Iturria: GAO

Data: 2011/03/07

Epea: 2011/04/07

Xedea: Ingurumena

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Diru laguntza honakoek jaso dezakete: Hiri hondakinen sortze-prebentzioaren eta berrerabilpenaren aldeko jarduketek, etxeko eta komunitateko konpostajea barne, eta sentsibilizazio eta komunikazio jarduketek hiri hondakinen sortze-prebentzioaren eta berrerabilpenaren inguruan; lehenek izango dute lehentasuna. Dena den, jarduketa horiek guztiek bat etorri behar dute Euskal Autonomia Erkidegoko 2002-2020 Garapen Iraunkorraren Ingurumen Estrategiarekin

ONURADUNAK:

- Gipuzkoako Lurralde Historikoko udalek eta hiri hondakinak kudeatzen dituzten mankomunitateek.
- Helbide soziala eta fiskala Gipuzkoako Lurralde Historikoan duten merkataritza sozietateek, betiere, xede sozialaren barruan hiri hondakinen kudeaketa baldin badago eta kapital sozialak izaera publikoa baldin badu oso-osorik.
- Gipuzkoako Lurralde Historikoan lan egiten duten irabazi asmorik gabeko entitateek.

ZENBATEKOA:

Jarduketa bakoitzeko laguntza honela kalkulatu da: Eskura dagoen aurrekontua onartu diren eskaeren artean proportzionalki banatuta. Banaketa egingo da, batetik jarduketa bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera (8.4 oinarrian zehazten diren irizpideak ezarrita lortutako puntuazioa, alegia), eta, bestetik, jarduketaren irispenaren arabera.

Diru laguntzaren zenbatekoa ez da izango, herri administrazioen eta merkataritza sozietateen kasuan, gastu lagungarrien %75 baino gehiago, eta irabazi asmorik gabeko elkarten kasuan, berriz, gastu lagungarrien %90 baino gehiago, eta bi kasuotan inoiz ez 80.000 euro baino gehiago jarduketa



bakoitzeko. Produktu erabiliak eta berriz erabiltzeko poltsak saltzea sustatzeko jarduketetarako (bigarren eskuko gauzen merkatu txikiak), gehenez %50eko diru laguntza emango da.

KONTAKTUA:

Juan José de Pedro

943112919

jjdepedro@gipuzkoa.net

ARAUTEGIA: Ingurumen Zuzendaritza Nagusia. Hiri hondakinen sortze-prebentzioaren eta berrerabilpenaren arloko jarduketetarako diru laguntzak emateko oinarri arautzaileak eta 2011ko deialdia onartzea. GAO: 2011/03/08

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1115_medio_ambiente_dfg_08-03-2011.pdf



Gipuzkoako Lurralde Historikoan erlezantza sustatzeko laguntzak

Informazio Iturria: GAO

Data: 2011/03/08

Epea: Laguntza eskaerak aurkeztu ahal izango dira banaka edo espediente kolektibo bidez erlezain elkarten kasuan, deialdian ezarritako epean, ustialekua dagoen tokiko Eskualdeko Nekazaritza Bulegoan, Landa Ingurunearen Garapeneko Departamentuaren Erregistro Orokorrean.

Xedea: Beste batzuk

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Erlezainei eta erlezain elkarteei informazioa eta laguntza teknikoa ematea. Neurri horren barnean laguntza jaso dezaketenak honakoak dira:

- Teknikoak eta espezialistak kontratatzea, erlezainen elkarteetako erlezainei informazioa eta laguntza teknikoa emateko.
- Erlezaintzako prestakuntza ikastaroak eta erlezainen elkarteetako teknikoentzako eta espezialistentzako etengabeko prestakuntza.
- Zabalkuntza teknikorako sistemak

Barroasiaren kontra egitea. Neurri horren barnean laguntza jaso dezaketenak honakoak dira:

- Erlezaintza arloan Osasuna Babesteko Taldeak edo antzekoak sustatzea eta sortzea barroasiaren aurka.
- Kimioterapiako tratamenduak (betiere, Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios erakundeak baimendutakoak badira).
- Barroasiaren aurkako tratamenduak, baldin eta erlezaintza ekologikoarekin bateragarriak badira (betiere, Agencia Española de Medicamentos y Productos Sanitarios erakundeak baimendutakoak badira).
- Erlauntzak gainelikatzeko eta argizaria berritzea. Bakarrik eman ahal izango zaie barroasiaren aurkako tratamendu kimioterapikoentzako edo erlezaintza ekologikoarekin bateragarriak diru tratamenduentzako aurreikusitako diru laguntzen onuradunak diren erlezainei, baldin eta aipatutako tratamenduen gaineko ekintzak lagundu eta gero baliabide ekonomikoak gelditzen badira.



Transhumantzia arrazionalizatzea.

- Erlauntza eta laukien identifikazioa.
- Erlauntzak garraiatzeko eta maneiatzeko lanabesak erostea eta hobetzea (garabiak, estaltze sareak, erlauntzak lore bakarreko eztiak lortzeko aldatzea, ezta ateratzeko sistema mugikorrek eta transhumantzia errazteko behar diren bestelako lanabes eta ekipoak).
- Erlauntzen kokaguneeen zein bertarako sarbideen hobekuntza, baldin eta lan horiek Gipuzkoako Lurralde Historikoaren barnean egiten badira.
- Bertako arrazetako erreginak haztea, hiladakoak ordezkatzeko

ONURADUNAK:

Erlezaintzako ustialekuen titular diren pertsona fisikoak edo juridikoak eta erlezain elkarteak, kooperatibak edota nortasun juridiko propioa duten bestelako ordezkariak-erakundeak.

ZENBATEKOA:

- Erlezainei eta erlezain elkartei informazioa eta laguntza teknikoa ematea: Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen gastuaren %80raino iritsi ahal izango da.
- Barroasiaren kontra egitea: Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %80raino iritsi ahal izango da.
- Transhumantzia arrazionalizatzea: Laguntzaren zenbatekoa laguntza jaso dezakeen inbertsioaren %65eraino iritsi ahal izango da.

KONTAKTUA:

943 48 21 11

ARAUTEGIA: 2011ko martxoaren 1eko 6/11 FORU DEKRETUA, Gipuzkoako Lurralde Historikoan erlezaintza sustatzeko laguntzei buruzkoa. GAO:2011/03/07

Euskal Autonomia Erkidegoko erlezaintzarentzako laguntzei buruzko 30/2005 Dekretuak, otsailaren 15ekoak. EHAA: 2005/03/10

Informazio gehiago:

http://intranet.garapen.net/documentacion/intranet/biblioteca/1114-1_apicultura_dfg_07-03-2011.pdf



Gipuzkoan gizarte ekintzailea sustatzeko programa

Informazio Iturria: GAO

Data: 2011/02/22

Epea: Ekintzen araberakoa.

Xedea: Ekintzailetasuna

DIRULAGUNTZA EMATEKO EGINTZAK:

Gizarte ekintzailea eraikitzeko estrategia orokor bat diseinatu da, hiru esparru hauek barne hartuta:

a) Hezkuntzaren esparruan ekimenaren zentzua sustatzea:

- Ikasketa planetan modu esplizituan sartzea.



- Neurri osagarri lagungarriak egituratzea: Proiektu pilotuak eskoletan, irakasle taldeen motibazioa eta prestakuntza, material didaktiko/pedagogikoak, etab.
- Esperientzia onak identifikatzea eta balioestea (gizarte aintzatespena eta ikasgai ikasiak).
- Beste lurralde eremu batzuekiko informazio eta esperientzia trukea.

b) Enpresak sortzeko eta garatzeko prozesuan laguntzea:

- Oinarri teknologiko edo berritzaileko enpresa berriak sortzea.
- Barne ekintzailatza bultzatzea.
